

KONTROL MOZIOA

ARKOAK ERAIKINEKO OBRAK EGITEKOAN ANTZEMANDAKO AKATSEN INGURUAN

EH BILDU udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrék, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta **KONTROL MOZIO** hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, Arkoak eraikineko obrak egitekoan antzemandako akatsak direla eta Gune Publikoen Batzordeak azaroaren 17an izandako bileran landutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Orain dela gutxi jakin dugu aldatu egin behar izan dela "Bretxako merkataritza-guneko Arkoak eraikinean dauden erabilera komuneko eremuak (eskailerak eta sotoko korridoreak) egokitzeko obra-kontratua" –2025eko urtarrilaren 14an formalizatu zen–, gerora sortutako eta aurreikusi ezin diren arrazoiengatik premia berriak agertu zirelako.

Hala, besteak beste, sute-sektorizazioa aipatzen da. Alde horretatik, kontratua aldatzea justifikatzeko egindako txostenak zera dio: "*Agerian geratu da obra batzuk egin beharra dagoela indarrean den **araudian eskatzen den sute-sektorizazioa bermatuko bada**". Horrez gain, hau ere jartzen du txostenak: "*Sute-sektorizazioaren kasuan, proiektua idaztean lanak behar bezala egin zirela jasotzeko beharrezkoak ziren egiaztapenak egin baziren ere, eta Arkoak eraikinean aurreko emakidadunak egindako obrak EKT-SI Seguratasuna suteen aurrean dokumentua betetzen zuela egiaztatzen zuen obra-amaierako ziurtagiria bazegoela egiaztatu zen arren, eraiste eta desmuntatze-lanak egitean **egiaztatu da ezkutatuta zeuden bermikulitazko estalduren zati batzuek ez dutela behar adina lodiera, hain zuzen ere suterik badago, sektorizazio-paramentuen babesa bermatzeko**".**

Bestalde, **atarteko sabai aizuna kentzean ere ur-filtrazioak antzeman dira**, bai eta **eskailera-buruetan errefortzuak egin behar izatea ere**; izan ere, metalezko egiturak ez daude behar bezala txarrantzatuta, eta horren ondorioz, baldosak jartzeko forjatua ezegonkorragoa da.

Horren gainean galdetu, eta Udal Gobernuak osorik berretsi zizkigun egindako interpelazioan salatutako gertaerak. Hala ere, Udal Gobernuaren ordezkariak adierazi zuen ezin ziela erantzun guk planteatutako gainerako galderei, hau da, ea obrak egitekoan obra-zuzendariak zergatik ez zuen ohartarazi ez zela EKT-SIn aurreikusitakoa bete, ea hasieran emandako ziurtagiria bat zetorren egiaztatutakoarekin, edota ea egiaztatu ahal izan zen egindako obra bat zetorrela EKT-SIn eta nahitaez bete beharreko gainerako araudian xedatutakoarekin.

Hori dela eta, hauxe da nire **KONTROL MOZIOA**:

1.- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Udal Gobernuari eskatzen dio eman behar diren jarraibideak emateko eta/edo jarri behar diren indartze-neurriak jartzeko Udalak sustatutako eta/edo kontrolatutako obrak behar bezala egitea begiratu eta kontrolatzeko, obra horiek egitekoan izandako akatsek eragindako gorabeherak murriztu ahal izateko hartara.

2.- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Udal Gobernuari eskatzen dio Arkoak eraikinak EKT-SIn jarritako araudia betetzen duela egiaztatzeko egin behar diren egiaztapenak egiteko.

3.- Era berean, Udal Gobernuari eskatzen dio, hautemandako ez-betetze gorabeherak ikusita, txostena egiteko obra honetan emandako ziurtagirien edukia eta benetako errealitatea bat datozen aztertzeko, eta, ondoren, lege aldetik neurriren bat hartu behar bada, hartzeko hartu behar diren neurriak.

Donostia, 2025eko azaroaren 21a

Ricardo Burutaran Ferré
EH BILDU udal taldeko zinegotzia